



Elikagaiak biltzeko kanpaina

Arabako Gurutze Gorriak

#ElkartasunKiloak operazioa hasi du

- Helburua ahalik eta elikagai kilo gehien biltzea da, biztanleriaren zatirik ahulenak pairatzen duen gizarte-larrialdiko egoera arintzeko.
- #ElkartasunKiloak operazioa milioi bat elikagai biltzeko operazioa da, Gurutze Gorriaren, ser katearen, 40en, Dialen eta Carrefour Elkartasun Fundazioaren aliantzapean.

COVID-19ren hedapenaren ondoriozko osasun-krisiak krisi ekonomiko eta sozial bat ekarri du, herrialde osoan ehunka mila pertsonari eragiten diena, eta aurreikuspen guztiak gainditu dituen biztanleria-zati baten artean elikagai-larrialdia eragin duena.

Elikagaiak herritarren zati ahulenak pairatzen duen larrialdi-egoera arintzeko erabiliko dira, COVID-19ren aurka borrokatzeko **Gurutze Gorria Erantzun Plana** hedapenaren barruan. Ekarpentz horiek, txikiak izan arren, gure gizartearen zati handi batek dituen zailtasunak gutxitzen lagunduko dute. "Onar dezakezu", dio kanpainak.

Bilketa kanpaina ekainaren 25etik (osteguna) 27ra (larunbata) egingo da Carrefour Gorbeia hipermerkatuan. Arabako Gurutze Gorriko 48 boluntariok eta Carrefour Elkartasun Fundazioko boluntarioek parte hartuko dute.

Elikagaiak ematerik ez badago, ekarpen ekonomiko bat egin daiteke www.cruzroja.es orriaren bidez.

2020ko ekainak 25 (osteguna), 26 (ostirala) eta 27 (larunbata)

10:00 etatik 14:00 etara eta 17:00 etatik 21:00 etara

Carrefour Gorbeian (Gorbeia merkataritza-gunea)

Álvaro García Serrano
Komunikazio Arduraduna

Arabako Gurutze Gorria
Tfn. 945 22 22 22 luzapena 8 | 678 40 14 43 | comunicacionalava@cruzroja.es

Gure idazkerak gure pentsamoldea islatzen du. Gurutze Gorria hizkuntza inklusiboaren alde.